



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

ALDUNDIAK KONTROLEKO OSOKOAN IRAGARRI DAUENEZ, “12 ENPRESAK” ERAKUTSI DABE ENERGY INTELLIGENCE CENTERREN PARTE HARTZEKO INTERESA

- **Foru Gobernuako kideek lau itauni eta ahozko bost erantzun-eskeri erantzun deutseez Covid-19aren garaian Gernikako Batzarretxean egin dan kontroleko lehenengo osokoan.**

(Gernikan, 2020ko bagilaren 17an). Bizkaiko Batzar Nagusiek, Covid-19aren pandemia dala eta osokoan jarduerak gelditu osteko Foru Gobernuak kontroleko lehenengo osokoa egin dabe gaur. Orain astebete ohiko osokoan egin zan moduan eukiera mugatuta egin dan saioan, Aldundiak ekonomia eta enpleoa barrindartzea bultzatzeko eta diru-sarreraren beherakadeari aurre egiteko neurrien eta Bizkaiko egoitzen sareko egoeraren ganeko informazioa emon dau.

Elkarrekin Bizkaia taldeak Energy Intelligence Centerren eta haren Oil & Gas unidatearen egokitasunaren ganean planteau dauen lehenengo itaunean, Ainara Basurko Ekonomiaren Sustapenerako foru diputatuak azaldu dauenez, “12 enpresak” erakutsi dabe “etorkizuneko energiaren sektorean nazinoarteko kompetentziako poloan” parte hartzeko interesa. Poloaren egoitzea joan dan astean aurkeztu eben Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak. Ekimenak garrantzi berezia hartzen dau koronabirusaren ondorio negatiboak dirala eta jarduera ekonomikoa moteldu egin dan garaietan. Aldundiko arduradunak adierazo dauenez, lankidetzak “publiko-pribaduko” proiektuak sektorearen lehiakortasuna finkatzen lagunduko dau, eta Bizkaiko enpresek hiru sektoretan eukiko daberen presentzia orokorra indartuko dau: Oil & Gas alorrean, energia elektrikoaren garraioan eta banaketan eta mobikortasun jasangarrian.

Elkarrekin Bizkaia taldeko Israel Escalantek proiektuaren “larregizko kostua” kritikau dau. Bere berbetan, “4 milioi eurokoa” izango da. Foru Gobernuak Oil & Gas izenekoaren alde egiten dauen apustua be kritikau dau, sektore hori dalako klimaren aldaketaren eragile “garrantzitsuenetakoa”. Bere ustez, proiektuak klimaren aldaketaren ganeko legearen eta klima larrialdian Parisen lortutako akordioaren kontrakoa izan daiteke. Aldundiaren eretziz, barriz, “etorkizuneko energia barrien arloan lekua hartzea” ekarriko dau, “energia trantsizioaren motor” izan gura dauen zentroaren bitartez.

EKONOMIA ETA GIZARTE EREDUA ETA DIRU-SARREREN JATSIERIA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Beste alde batetik, Eneritz De Madariaga talde moreko bozeroaleak, “bizitzaren iraunkortasuna bermatuko dauen gizarte eta ekonomia eredu barrirako bidea egiteko” aurreikusten diran neurrien ganean itaundu deutso Ahaldun Nagusiari. Bere berbetan, osasun arloko krisiak zerbitzu publikoak “ahulak dirala, ez dirala nahiko eta prekarizazinoa nagusi dala” erakutsi deusku, eta argi eta garbi geratu da “ez dagola behar besteko giza eta material baliabiderik”. Lehentasunak ez dira “Bizkaia Torrea, Lamiakoko erreka azpiko errepidea edo Ezkerraldeko industrialderako sarbideak”, “personak erreskatetea” baino, adierazo dau.

Bere erantzunean, Unai Rementeriak “erantzukizun politikoa”, “nasaitasuna”, “sen ona” eta “begirada luzea” eskatu ditu, “prisak ez diralako aholku emoile onak”, Bizkaiko ekonomia bultzatu behar daben proiektuen ganeko erabagiak hartzeko orduan. Ahaldun Nagusiak azaldu dauenez, lehenengo egin behar dana, osasunari jagokonez aurrera egitea izango da, horren ostean krisiak ekonomian itzi deuskun “benetako” eragina ikusteko. “Ez daukagu perspektibarik, ez dakigulako zein izango dan ekonomiak jasango dauen eragina”. Dana dala, beste erabagi batzuk hartu aurretik “kontuz ibiltea eta gauzak argiago, modu seguruan, ikustea” eskatu dau Ahaldun Nagusiak. Hori dala eta, Elkarrekin Bizkaia taldearen berbaldi “erradikala” kritikau dau, “dana aldatzea eta zuritik baltzera pasetea” gura dauelako. “Loiolako San Inaziok esaten eban moduan, krisialdi handiko garaietan, hobe da gauzak leku batetik bestera ez eroatea”.

Beste alde batetik, EH Bilduk diru-sarrerren jatsiereari aurre egiteko hartu behar dituan neurri fiskalen ganean itaundu deutso Foru Gobernuari. Arantza Urkaregiren berbetan, gai hori “ezin daiteke baztertu”, gizarteko behar “nagusiei” erantzun ahal izateko. Horretarako, koalizino abertzaletik, “aldi baterako” izaerea eukiko dauen “covid tasea” planteau da, Ondarearen eta PFEZ Zergen tarte altuenak kargetako.

Jarduera ekonomikoa geratzeak “531 milioi euroko” diru-sarrerren zuloa eragin dau Foru Ogasunean maiatzera arte, “%17,3ko” jatsierea, hain zuzen be. Datu horregaz, José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako diputautak azaldu dau “ez dagola diru-bilketaren jatsierea konpentsauko dauen zerga aldaketarik”. “Gaur egun jatsiera hori 1.250 eta 1.650 milioi euro artekoa izango dala aurreikusten dogu”. Jatsierea konpentsetako, Aldundiak “%35 edo %40” igon beharko leuke inposizino zuzena. Diru-sarrerren jatsierea konpentsetako, Kupoaren Batzorde Mistoan akordio “estrukurala” lortzearen alde agertu da, hiru elementu konbinatuz: “datozan 3 edo 4 urteetan” zorra igotzea, eta “10 urtetan” egungo zorrera itzultzea; Europako Funtsen banaketan parte hartzeko aukerea; eta Kupo murriztea, Gobernu Zentralaren neurri ekonomikoak konpentsetako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Konponbide horretara ailegau aurretik, Iruarrizagak 5 gai garrantzitsu kontuan izatea eskatu dau. Lehenengoa, pandemiak ekonomian izango dituan ondorioen ganeko datu “argiak” izatea da, “batzuetan zergak igotzeak diru gitxiago batzea dakarrelako”. Ogasuneko arduradunak adierazo dauenez, diru-bilketaren jatsierea ez dau zerga arloko aldaketa batek eragin, pandemiak eragin dau. Ganera, kontuan izan behar da Bizkaiak inposizino zuzenean baino ez daukazala arauzko eskumenak, eta horregaz diru-sarrera guztien “%49,4” jasoten dala. Eta, ganera, aldaketak egonez gero, horreek ez litzatekez 2021eko ekitaldian ikusiko. Bukatzeko, Gobernu zentralak finantza arloko transakzioen eta “Google tasaren” ganean planteau dituan zerga arloko aldaketek gudan zein eragin daukien aztertu beharko da. EH Bilduk planteetan dauen “Covid tasari” jagokonez, horren eraginak ez litzatekezala hurrengo ekitaldira arte ikusiko eta “300 edo 350 milioi euroko” eragina euki daikela esan dau.

EGOITZEN EREDUA

Beste Itau batean, EH Bildu taldeak “aldaketea” eskatu deutso Foru Gobernuari Bizkaiko egoitzen eredian. Arlo horretan, Sergio Murillo Gizarte Ekintzako diputatuak esan dauenez, Aldundiak, EICH plataformaren bitartez zabaldu dan iraupen luzeko zainketen ganeko “Europa mailako gogoeteagaz” bat egin gura dau. “Daborduko horretan parte hartzea eskatu dogu”. Oxfordeko Unibersidadeko Sarah Harper buru dan plataforma horretan, “Europako sei aditu” ari dira beharrean joan dan maiatzaren 6tik, adinekoen iraupen luzeko zainketen etorkizuneko eredia diseinetan.

“Lehenengo azterketea hemen, Bizkaian, egin behar da, erabiltzaileak eta zaintzaileak parte hartuz”, planteau dau EH Bilduk. Batzarretako talde horrek “gertuko eredia” planteetan dau, “hori posible dalako, egoitza handietan emoten dan ereditik urrun”.

Murillok erantzun deutsonez, Bizkaiko ereduak “egoitza hobeak izatea, arreta hobe emotea, halan gura dabenei laguntzak jasoteko eta zahartzaroa etxean igaroteko eta zelan bizi gura daben erabagiteko aukerea emotea” bilatzen dau, eta iraupen luzeko zainketen eredu onenaren ganeko gogoetan oinarritzen da. EH Bilduren kritiken aurrean, Murillok Bizkaiko egoitzen eredia defendidu dau, osasun arloko krisi honetan Europako beste herrialde batzuetako ereduak baino erantzun “hobeak” emon dauelako. Koronabirusa dala eta Bizkaian hil diran guztien “%31,9a” egoitzetan hil da; Alemanian kopuru hori “%37koa” da, eta Austrian “%41ekoa”; datuak, Belgikakoak, Suediakoak edo Danimarkakoak baino hobeak be badira.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

COVID-19a dala eta Aldundiak Bizkaibusen martxan jarri eban ez ohiko garbiketa eta desinfekzio zerbitzua bertan behera geratzeari jagokonez, Garraio eta Mugikortasun Jasangarriko foru diputatuak ukatu egin dau zerbitzu hori bertan behera itzi danik. Horren ordezt, maiatzaren 20ko foru aginduaren bitartez markautako "beste dinamika" bat jarri zan martxan. Horren bitartez, iragazkien garbiketea eta ordezkatzeta zorrotzu egiten ziran, eta aire egokituaren berzirkulazino sistemea ez erabiltea agintzen zan. Gaeuz, kotxetegieta, garbiketarako zerbitzuak birusak hiltetako osagaiak dituen produktuak erabilten hasi ziran.

Gómez Viarrek ukatu egin dau baliabideak murriztu diranik, "lehentasuna ez jakolako diru-kontuari emon, beharginen eta erabiltzaileen segurtasunari baino". Aldundiak "700.000 euro" gastau ditu neurri horreetan. Emilio Lobato Elkarrekin Bizkaia taldeko batzordekideak autobusak garbitzeko baliabideen faltea kritikau dau, izan be, "15 minututan" behargin bakotxak "Bizkaibuseko zortzi unidate" garbitu behar ebazan.

EH Bilduk egindako beste itaun bati emon jakon erantzunean, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizikletaren Aldeko Urien Sareagaz bat egin dauela baieztu dau Gómez Viarrek. Foru erakundeak foro horretan planteetan dituan neurrien artean honeek dagoz: "5.000 biztanletik gorako" udalei azpiegiturek eregiteko "diru-laguntzak" emotea; puntu intermodaletan "aparkaleku estrategikoak" instalaletako azterlana egitea; edo herritarrak bizikletaren erabilera egokian heztera zuzendutako "online" ikastaro bat diseineteta. EH Bilduko Raul Mendezen eretxiz, bat egite hori Aldundiaren "irudia garbitzeta" baino ez da, eta bizikletaren erabilerea bultzatzeko eta errazteteo neurri gehiago eskatu ditu. Izan be, pandemiak iraun dauen bitartean, bizikletaren erabilerak "%30" egin dau gora.

Aldundiak enpleoari eusteteo beste neurri batzuk be iragarri ditu. Holan, Ainara Basurko Ekonomiaren Sustapenerako diputatuak iragarri dauenez, Bizkaiak bigarren "Bono Denda" kanpaina eukiko dau, kanpaineagaz bat egingo dauen Bizkaiko edozein saltokitan kontsumoa indartzeteo, 30 eurotik gorako erosketetan 10 euroko beherapena daukien bonoen lehenengo jaulkipena aztertu ostant. Proponidu diran neurrien artean, "hilebete edo hilebete eta erdi barru" Batzar Nagusietan behar barrietara egokitutako enpleorako plana aurkeztuteo dauela iragarri dau Teresa Laespada Enplegu diputatuak. EH Bilduk txalotu egin dau plan hori, baina taldearen eretxiz, "beharrezkoa" da energiaren trantsizinoagaz eta ekonomia zirkularragaz lotutako enpleoa bultzatzean zentrauko dan "epe ertain eta luzeteo" enpleo plana egitea.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA DIPUTACIÓN ANUNCIA EN EL PLENO DE CONTROL QUE “12 EMPRESAS” SE HAN INTERESADO EN PARTICIPAR EN EL ENERGY INTELLIGENCE CENTER

- Los miembros del Gobierno foral han respondido hoy en el primer pleno de control en la Casa de Juntas de Gernika en la etapa del covid-19 a cuatro interpelaciones y cinco preguntas orales de la oposición.

(Gernika, a 17 de junio de 2020). Las Juntas Generales de Bizkaia han celebrado hoy su primer pleno de control al Gobierno foral tras el parón de la actividad plenaria por la pandemia del covid-19. En esta sesión, celebrada con limitación de aforo en la Casa de Juntas de Gernika, como ya sucedió hace una semana en el pleno ordinario, la Diputación ha informado sobre las medidas para impulsar la reactivación económica y el empleo, y hacer frente a la caída de ingresos, así como la situación en la red de residencias de Bizkaia.

En la primera interpelación sobre la “idoneidad” del Energy Intelligence Center (EIC) y su unidad de Oil&Gas planteada por Elkarrekin Bizkaia, la diputada foral de Promoción Económica, Ainara Basurko, ha explicado que “12 empresas” se han interesado ya en participar en este “polo de competencia internacional en el sector energético del futuro”, cuya sede fue presentada la semana pasada por la Diputación y el Gobierno vasco, en unos tiempos marcados por la paralización de la actividad económica por los efectos negativos del coronavirus. Según la responsable foral, este proyecto de colaboración “público-privado” contribuirá a consolidar la competitividad del sector y la presencia global de las empresas de Bizkaia en tres segmentos: Oil & Gas, el transporte y distribución de energía eléctrica, y la movilidad sostenible.

En su réplica, Israel Escalante, de Elkarrekin Bizkaia, ha criticado el “sobrecoste” de dicho proyecto, que ha cifrado en “4 millones de euros” y la apuesta que el Gobierno foral hace del Oil & Gas, sector que representa una de las fuentes “principales” de los efectos del cambio climático. Este proyecto puede “chocar”, a su juicio, con la ley de cambio climático y con el Acuerdo de París “en plena emergencia climática”. Sin embargo, para la Diputación el EIC representa “un posicionamiento en las nuevas energía de futuro”, y un “motor de la transición energética” en Bizkaia.

MODELO ECONÓMICO Y SOCIAL, Y CAÍDA DE INGRESOS



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Por otro lado, Eneritz De Madariaga, portavoz del grupo morado, ha interpelado al diputado general por las medidas previstas “para transitar hacia un nuevo modelo social y económico que garantice la sostenibilidad de la vida”. Según ella, la crisis sanitaria nos ha dejado ver la “fragilidad, insuficiencia y precarización” de los servicios públicos, poniéndose de manifiesto “la falta de recursos humanos y materiales”. Las prioridades no pasan, según ella, por la “Torre Bizkaia el subfluvial de Lamiako, o los accesos del parque industrial de Ezkerraldea”, sino por “rescatar a las personas”.

En su respuesta, Unai Rementeria ha pedido “responsabilidad política”, “calma”, “sentido común” y “mirada larga”, porque “las prisas no son buenas consejeras” para tomar decisiones sobre proyectos que deben impulsar la economía de Bizkaia. El diputado general ha explicado que lo primero es salir adelante sanitariamente, para ver después el impacto económico “real” que nos ha dejado la crisis. “Nos falta perspectiva, ya que no sabemos la afección económica”. Rementeria ha recordado que se han aplicado “medidas urgentes para una situación de urgencia”, si bien ha pedido “cautela y más certezas” antes de tomar otras decisiones. Por ello, ha criticado el discurso “radical” del grupo Elkarrekin Bizkaia por querer “cambiarlo todo y pasar del blanco al negro”. “Como decía San Ignacio de Loyola, en tiempo de grandes crisis, no hacer mudanza”.

Por otro lado, EH Bildu ha interpelado al Ejecutivo foral por las medidas fiscales a adoptar para hacer frente a la caída de ingresos, una cuestión que, según Arantza Urkaregi, es “ineludible” puesto que hay que hacer frente a “mayores” necesidades sociales. Para ello, desde la coalición abertzale han planteado una “tasa covid” de carácter “temporal” que recargue los tramos más altos en el Impuesto de Patrimonio e IRPF.

La parada de la actividad económica ha provocado un agujero de ingresos en la Hacienda foral de “531 millones de euros” hasta el mes de mayo, una caída del “17,3%”. Con este dato, el diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga ha explicado que “no hay una modificación tributaria que compense la caída de la recaudación”, que “hoy” se calcula “entre 1.250 y 1.650 millones de euros”. La Diputación tendría que elevar un “35 o 40%” la imposición directa para compensar esta caída. Frente a esto, él ha apostado por alcanzar un acuerdo “estructural” en la Comisión Mixta del Cupo combinando tres elementos: una elevación de la deuda “durante los 3 o 4 próximos años” y volver a la deuda actual “en 10 años”; la posibilidad de participar en el reparto de los Fondos Europeos; y la minorización del Cupo en compensación a las medidas económicas del Gobierno central.

Pero antes de llegar a esta solución, Iruarrizaga ha pedido que se tengan en



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

cuenta “cinco grandes cuestiones”. La primera, es tener datos “claros” sobre las consecuencias económicas de la pandemia, ya que “a veces la subida de impuestos provoca menos recaudación”. El responsable de Hacienda ha señalado que la caída de la recaudación no proviene de un cambio tributario, sino que está provocado por la pandemia. Además, hay que tener en cuenta que Bizkaia sólo tiene competencias normativas en la imposición directa con la que se recauda “un 49,4%” de todos los ingresos, y que de producirse cambios, estos no se verían en el próximo ejercicio. Y, por último, es necesario analizar, a su juicio, cómo van a afectar los cambios tributarios que plantea el Gobierno central en relación a las transacciones financieras y la “tasa Google”. En cuanto a la “tasa covid” que plantea EH Bildu, ha dicho que sus efectos no se verían hasta el próximo ejercicio y su impacto sería de “300 o 350 millones de euros”.

MODELO DE RESIDENCIAS

En otra Interpelación, el grupo EH Bildu ha pedido al Gobierno foral otro “cambio”, en este caso en el modelo de residencias de Bizkaia. En este asunto, el diputado de Acción Social, Sergio Murillo, ha revelado que la Diputación quiere sumarse a una “reflexión europea” sobre los cuidados de larga duración que ha sido lanzada ya a través de la plataforma EICH “en la que ya hemos solicitado participar”. Liderada por Sarah Harper de la Universidad de Oxford, en dicha plataforma, “seis expertos europeos” trabajan desde el 6 de mayo en idear el modelo del futuro de los cuidados de mayores de larga duración.

“El primer debate se debe de dar aquí, en Bizkaia, con la participación de personas usuarias y cuidadoras” le ha contestado EH Bildu, grupo juntero que plantea un modelo “de cercanía, que es posible, alejado del que se presta en grandes residencias”.

Murillo ha trasladado que el modelo de Bizkaia se basa en una reflexión para construir un modelo “con mejores residencias, para hacer una mejor atención, de usuarios que prefieren elegir los apoyos y envejecer en casa, y decidir cómo quieren vivir”. Pese a las críticas de EH Bildu, Murillo ha defendido, no obstante, el modelo de residencias de Bizkaia, ya que se ha comportado “mejor” en esta crisis sanitaria respecto a otros países europeos. El “31,9%” de los fallecidos totales en Bizkaia por coronavirus se ha producido en residencias, cuando en Alemania esta cifra se sitúa en el “37%”, y en Austria en el “41%”; obteniendo también mejores datos que países como Bélgica, Suecia o Dinamarca.

TRANSPORTE Y EMPLEO



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En relación a la suspensión del servicio extraordinario de limpieza y desinfección que la Diputación había puesto en marcha en Bizkaibus con motivo del Covid-19, el diputado foral de Transportes y Movilidad Sostenible, Javier Gómez Viar ha negado que se haya suspendido dicho servicio. Se modificó con “otra dinámica” que fue marcada a través de una orden foral el 20 de mayo, por la que se extremaba la limpieza de filtros y su sustitución, y se ordenaba no utilizar el sistema de recirculación del aire acondicionado. Por la noche, en cocheras, los servicios de limpieza incluyeron “productos con componentes virucidas”.

Gómez Viar ha negado que Diputación escatime en recursos, ya que “no ha primado el tema monetario, sino la seguridad de trabajadores y usuarios”. La Diputación ha gastado “700.000 euros” en estas medidas. El apoderado de Elkarrekin Bizkaia Emilio Lobato ha criticado la falta de recursos para limpiar los autobuses ya que “en 15 minutos” se debían limpiar “ocho unidades de Bizkaibus”.

En otra respuesta, esta vez a pregunta de EH Bildu, Gómez Viar ha confirmado la adhesión de la Diputación Foral de Bizkaia a la Red de Ciudades por la Bicicleta. Entre las medidas que plantea la institución foral en este foro, se encuentran “subvenciones” a ayuntamientos “de más de 5.000 habitantes” para construir infraestructuras; un estudio para instalar “aparcamientos estratégicos” en puntos intermodales; o el diseño de un curso “online” destinado a educar a la población en el buen uso de la bicicleta. Raúl Méndez, de EH Bildu, cree que la adhesión supone un “lavado de imagen” de la Diputación y ha pedido más medidas para fomentar y facilitar el uso de la bicicleta, que ha crecido un “30%” durante el periodo de pandemia.

La Diputación ha anunciado también otras medidas destinadas a mantener el empleo. Así, la diputada de Promoción Económica, Ainara Basurko, ha anunciado que Bizkaia contará con una segunda campaña de “Bono Denda” destinada a reactivar el consumo en cualquier comercio de Bizkaia que se adhiera, tras analizar un primer lanzamiento de bonos descuento de 10 euros para compras superiores a 30 euros. Entre otras medidas, la diputada de Empleo, Teresa Laespada, ha anunciado, por su parte, que “en mes o mes y medio” presentará en las Juntas Generales un plan de empleo adaptado a las nuevas necesidades. EH Bildu ha aplaudido este plan, aunque ven “necesario” elaborar un plan de empleo “a medio y largo plazo” que se centre en impulsar el empleo ligado a la transición energética y la economía circular.